



ORIOKOU DALA

Euskaraz
bizi-bizi

2022an ORIOKO UDALERRIAN KULTUR, GAZTERIA, INGURUMEN ETA AISIALDI JARDUEREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Helburua

Irabazi asmorik gabeko Orioko kultur, gazteria, ingurumen eta aisialdiko talde zein elkarteei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzea da, 2022an sektore horietan egitasmo eta jarduerak burutzeko. Jarduera hauek, betiere, bat egin behar dute Orioko Udalaren kultura, gazteria, ingurumen eta aisialdirako programen helburuekin.

Dirulaguntzak ondorengo atalen baterako eskatu ahal izango dira:

- Orioko kultur, natura eta gazteria erakunde eta taldeen ohiko jarduerak.
- Gazteria, ingurumen edo eta kultur jarduera puntualak: berezko ezaugarriengatik aurreikusi ezin izan diren jarduerak dira, edota aldian behinekoak direlako oinarriotan zehaztutako epean burutuko direnak. Kultura eta Gazteria batzordeari dagokio ekimenaren izaera puntuala zehaztea.
- Kultura-, gazte-, natura- eta aisialdi-egitasmo eta jarduerak, honako gaietan: musika, antzerkia, dantza, folklorea, literatura, aisialdia, artisautza, arte plastikoak, bertsoaritza, ikus-entzunezkoak, ingurumenaren defentsa-zaintza, ondare historiko-arkeologikoa eta kultur aniztasuna.
- Auzoetako festak.

Bigarrena. Finantzaketa.

Deialdi honen helburuak lortzeko 51.000,00 euroko diru kopurua dago Orioko Udaleko 2022. urterako aurrekontuaren partida hauetan:

- 0605.481.01.334.40 2022 “KULTUR jardueretarako dirulaguntza”: 26.000,00 €
- 0612.481.01.338.00 2022 “AUZOETAKO festak: dirulaguntzak”: 6.000,00 €
- 0617.481.01.337.20 2022 “GAZTERIA: dirulaguntzak”: 19.000,00 €

Orioko Udalak baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du dauden eskaera guztiak aztertu ondoren. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Hirugarrena. Irizpide orokorrak.

Dirulaguntzen helburua da irabazi asmorik gabeko ekintzak bultzatzea. Dirulaguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa da. Dirulaguntza emateak ez dio Udalari inolako derrigortasunik ekarriko hurrengo deialdiei begira.

Laugarrena. Onuradunak



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi



Dirulaguntza hauek deialdi honetan zehaztutako arloetan kultura-, gazteria-, ingurumen- eta festa-ekintzak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko entitate juridiko pribatuek jaso ahal izango dituzte, betiere Orion helbide soziala izanez gero.

Salbuespen gisa, zehazten den kasuetan eta Kultura eta Festak Batzordearen proposamenaz, herritik kanpo kokatutako entitateek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, hain zuzen ere, beren jardueren zati nabarmen bat udalerrriaren barruan garatzen bada edo udalerrientzat interesgarritzat jotzen bada.

Entitateek indarrean dagoen legediaren arabera erataka egon beharko dute, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean izena emanda.

Salbuespen bezala, pertsona eta talde ez erregistratuek ere dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute, betiere irabazi asmorik gabeko egitasmoa bada. Aldez aurretik proposamena justifikatuko da eta Kultura eta Festak Batzordean diktaminatu.

Dirulaguntza hauek beste batzuekin batera daitezke; horrela bada, adierazi egin beharko da jarduera bererako bestelako dirulaguntzak eskatu direla.

Bosgarrena: Bazterketak

Deialdi honetatik kanpo honako hauek geratzen dira:

- a) Dirulaguntzetarako Lege Orokorren (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.
- b) Direnagatik edo duten helburuagatik Kultura eta Festak sailaren jarduerekin inongo loturarik ez duten jarduerak.
- c) Edozein motatako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskabideak, baita Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin eguneratuta ez daudenak ere. Dirulaguntza eskaerarekin batera, eskatzaileak, zerga-betebeharretan egunean dagoela ziurtatu beharko du.
- d) Ez dira aintzat hartuko aurreko edizioetan jasotako dirulaguntza justifikatzeko memoria edo/eta gainontzeko dokumentazioa entregatzeko dituzten jarduerak edo programak.
- e) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu, erlijio iritziagatik diskriminazioaren debekua) betetzen ez duten elkarte edo erakundeek edo pertsonen eskabideak.



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

f) Onuradunek, indarrean dagoen lege-araudia bete beharko dute, besteak beste, Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 legea. Hortaz, ez zaie dirulaguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexu-bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

g) Merkataritza-entresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira, nahiz eta beren jarduerak zerikusia izan kultur arloarekin.

Seigarrena. Eskabideak.

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak.

Leku hauetan eska daitezke:

Udal-erregistroan

- Udaletxeko bulegoetan (astelehenetik ostiralera: 08:30 - 14:30)
- Telematikoki: orio.eus bulego elektronikoa, ziurtagiri digitala erabilia.

Eskaera-orriarekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da nahitaez:

Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- a) Dirulaguntza eskaera-orri normalizatua, betea eta sinatua.
- b) Proiektuaren edo jardueren txostena (I. eranskina).
- c) Proiektuaren gastu eta sarreraren aurrekontu orekatua (II. eranskina)
- d) Zinpeko aitortpena betea eta sinatua (III. eranskina)
- e) Identifikazio Fiskaleko Kodearen dokumentuaren fotokopia (dirulaguntza lehen aldiz eskatzen duten elkarteak).
- f) Erakundearen arduradunen NAN fotokopiak (dirulaguntza lehen aldiz eskatzen duten elkarteak).
- g) Erakundearen estatutuak eta curriculum: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab. (dirulaguntza lehen aldiz eskatzen duten elkarteak).

Agiriok ez aurkezteak dirulaguntza jasotzeari uko egiten zaiola esan nahiko du. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutzeak dirulaguntza hau, edo ondorengoak, jasotzeko eskubide galera ekarriko du.

Aurreko urteetan eskaria egin izan duten erakunde edo taldeek, datuetan aldaketarik izan badute, Kultura eta Gazteria Batzordeari aldaketon berri eman beharko die

Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

Zazpigarrena. Epeak

Eskaera aurkezteko azken eguna: **30 egun** deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Dokumentazioa eta informazioa lortzeko eta eskabideak aurkezteko lekua: Orioko Udaleko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan, edo informazioa www.orio.eus.

Baldin eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 eguneko epean forma-akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko eskatuko zaio. Gainera, ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta, horrenbestez, eskaera besterik gabe artxibatu egingo dela.

Eskaeraren ale bat erakunde eskatzaileak jasoko du, eta bestea, Kultur Sailera bideratuko da.

Zortzigarrena. Balorazioa irizpideak

Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak honakoak dira: diruz lagundutako jarduerarekin bat etorri eta oinarri hauetan finkatutako epeen barruan egiten direnak, hala nola: kultura-, gazteria-, ingurumen-, eta aisialdi-jarduerak sustatu eta hedatzeko programak edo ekintzak, honako diziplinen barruan daudenak: dantza, antzerkia, musika, folklorea, arte plastikoak, artisautza, aisialdia, literatura, ikus entzunezkoak, ondare historiko-arkeologikoa eta ingurumenaren defentsa eta zaintza (betiere, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 31.art., Dirulaguntzen Lege Orokorrak, xedatzen duenarekin bat etorriz gero)

Kultur eta gazteri teknikariak aurkeztu diren eskaerak baloratu ondoren prestatutako txostena Kultura, Gazteria eta Festak Batzordean aurkeztuko du. Batzorde horretan dirulaguntzak diktaminatu egingo dira, hala badagokio. Ondoren, alkate dekretuz onartuko dira, gehienez eskaera jaso eta hiru hilabeteko epean.

Jarduerak baloratzeko irizpideak: gehienez 100 puntu.

Parte- hartzaile, ikusle, antolatzaile kopurua	Puntuak gehienez: 20
<100	5
100-300	10
>300	20
Aurrekontua	Puntuak gehienez: 20
0€-1.500€	0



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

1.501€-3.000€	5
3.001€-4.500	10
4.501€-6.000€	15
>6.000 €	20
Aurrekontuan elkartearen ekarpena	Puntuak gehienez: 15
%25a baino gutxiago jarri du onuradunak	0
%25 - 49 bitartean jarri du onuradunak	5
% 50 - 74 bitartean jarri du onuradunak	10
% 75 - 99 bitartean jarri du onuradunak	15
Emakumezkoen parte-hartzea sustatzeko berariazko ekimenak	Puntuak gehienez: 10
Emakumezkoen eta gizonezkoen parte hartzean oreka lortzeko neurriak ikuskizunean, ikuslegoan eta antolaketan.	2
Genero-ikuspegia eta parekidetasun-irizpideak txertatzea proiektuetan.	2.
Jardueran ikuspegi estereotipatuak desagerraraztea eta genero-rolak apurtzea sustatzea.	2
Bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeen parte hartzea errazteko berariazko neurriak hartzea (adineko emakumeak, etorkinak, alargunak, aniztasun funtzionala dutenak...)	2
Bizitza familiarra, pertsonala eta lanekoa, eta parte hartzea bateragarri egiteko berariazko neurriak hartzea.	2
Herriko beste elkarte edo kolektiboekin elkarlana sustatzea.	Puntuak gehienez: 10
Elkarte 1	5
> 2 elkarte	10
Jarduera-proposamenaren kalitatea, honako gaietan: Aurrekontuaren zehaztasuna, Giza baliabideen zehaztasuna, Baliabide materialen zehaztasuna, Egitarau zehatza eta hausnartua , Jardueran berritasunak txertatzea	Puntuak gehienez: 25

Gutxienez, dirulaguntzaren %80 ziurtatuko zaie 2021ean dirulaguntza jaso zuten elkarteei, betiere dagokion partidan dagoen diru-kopuruak hori ahalbidetzen badu eta jarritako irizpideen arabera jarduerak kalitatekoak eta bideragarriak direla bermatzen badira.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez, bere horretan, eta ez beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak gehituta).

Bederatzigarrena. Dirulaguntzen ordainketa.



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

Dirulaguntzaren % 75 dirulaguntza ematea onartzen denean eta gainerako % 25 agiri hauek aurkeztu ondoren:

- a) Dirulaguntza justifikazio-orri normalizatua betea eta sinatua.
- b) Diruz lagundu den programaren edo jardueren memoria (IV. eranskina).
- c) Proiektuaren sarreren eta gastuen balantze ekonomiko orokorra eta jarduera bakoitzaren balantze xehatua. (V. eranskina)
- d) Fakturen edo gastu egiaztagirien zerrenda zenbakitua. (VI. eranskina)
- e) Egindako gastuen agiriak zerrendan jaso den hurrenkera mantenduz eta agiri bakoitzari dagokion zenbakia jarriaz. Fakturak edota baliokideak. Ez dira gastu-oharrak edo ticket-ak onartuko.

Fakturek, gutxienez, datu hauek izango dituzte:

- Faktura-zenbakia.
- Emaille/hornitzailearen identifikazioa (izena, helbidea, IFK/NAN)
- Zerbitzua/hornidura hartzen duenaren identifikazioa (elkartearena, ez partaideren batena)
- Kontzeptua (zein zerbitzu eman den, zer erosi den...)
- Data (epealdiaren barnean)
- Kopurua guztira (zergak barne; BEZ, PFEZ, GS...)

Salbuespen bezala, «jaso dut» agiriak onartuko dira, betiere honako kasu hauetan:

- Zerbitzu berezi bat eman denean eta zerbitzu horren emaileak fakturarik igorri ezin duenean.
- Ez da «jaso dut» agiririk onartuko materialaren edo produktuen horniduragatik.
- «Jaso dut» agiriak, gehienez, 300 eurokoak izango dira.

- f) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoak.

Elkarteeak aurkeztutako aurrekontuaren %80a zuritu beharko dute, gutxienez.

Dirulaguntzak emateko eta zuritzeko irizpide hauek kontuan hartuko dira:

- Elkarteko kideentzat egiten diren, arrazoitu gabe edo jardueraren parte ez diren jarduera gastronomikoak kontzeptuan gehienez aurrekontu osoaren %8a finantzatuko dira.
- Finantzatzen den jarduerarekin zerikusia ez duten zozketak eta loteriak ez dira kontuan hartuko.
- Txosna eta taberna produktuetan egindako gastuak ez dira kontuan hartuko.



ORIOKOU DALA

Euskaraz
bizi-bizi



Dokumentazioa aurkezteko epea: jarduera egin eta hurrengo hiru hilabeteen barruan eta, gehienez ere, dirulaguntza eman den hurrengo ekitaldiaren **otsailaren 1a baino lehen**.

Behin elkarteek/pertsonak gastuen zuriketak aurkeztu eta bi hilabeteko epea izango du Udalak gastu-zuriketa horiek ebazteko.

Hamargarrena. Hizkuntza-betebeharrak

Dirulaguntza eskuratzeko baldintza izango da Oriko Udalak indarrean duen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzaren 41.2. artikuluan ezarritakoa betetzea: «Kultur, kirol, eta aisi subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Oriko Udalaren dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren ihardun subentzionaletan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, euskaraz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz eman beharko dituzte».

Hamaikagarrena. Publizitatea

Diruz lagundutako jarduerari publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatu duen pertsonak edo erakundeak Oriko Udalaren laguntza jaso duela adierazi beharko du, irudi korporatiboa honela erabiliz:

“Laguntzailea:



Hamabigarrena. Ebazpenen berri ematea

Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea 3 hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Kasu guztietan elkarteari ebazpenaren berri emango zaio, dirulaguntza jaso hala ez.

Emandako diru-laguntzan berri Udaleko iragarki taulan emango da eta ebazpenaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Orokorrean. Nahikoa izango da Udaleko iragarki taulan jartzea, emandako dirulaguntza bakoitza 3.000 euro baino gutxiagokoa denean.

Eskatutako dirulaguntza ematearen aldeko edo kontrako berriazko ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Ebazpen horren kontra Administrazioarekiko Auzi errekurtsua jar daiteke, Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzitarako



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi



Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta nahi izanez gero, Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa jarri aurretik, Berraztertze Errekurtsoa jar dakioko ebazpena eman zuen organoari.

Hamahirugarrena. Baldintzak ez betetzea

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada dirulaguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu edo emandako diru kopurua itzuli egin beharko da.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, laguntza edo dirulaguntza eman zuen organoaren eskariz, eta, hala badagokio, emandako dirulaguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.

Hamalagarrena. Klausula osagarriak

Dirulaguntzak jasoko dituzten jarduera batzuek, ezaugarrien arabera, 17/2019 dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko arautegia onartzen duena eta horrekin lotutako segurtasun-arloko bestelako araudia bete beharko dute.

Onuradunek tokian tokiko eta dagokion gobernuak ezartzen dituen segurtasun irizpide eta neurriak hartuko ditu ezinbesteko arrazoiengatik finantzatutako jardueren bertan behera edo atzerapena gertatzen bada, hau da, hondamendi naturalengatik, euri-jasengatik, larrialdi-egoeragatik edo antzekoengatik.

Oinarriaren interpretazioan edo ezarpenean sor litezkeen zalantzak dagokion udal batzordeak erabakiko ditu.

Araudia urtero berrikusiko da.